



BATZORDE BETEARAZLEAREN ERABAKIA

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Gobernu Batzordeak 2024ko urriaren 25eko bileran erabaki zuen aldi baterako langile baten kontratazioa abian jartzea. Halaber, hautaketa-prozesua arintzeko xedearekin, saio horretan bertan eskumena eman zitzaion Batzorde Betearazleari prozesua bideratzeko eta ebazteko.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 77. artikuluan eta Partzuergoaren Estatutuen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatu lanpostua betetzeko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez hasi da hautaketa-prozesua.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak lan-eskaintzan izena eman duten hautagaien curriculum vitae-ak helarazi dizkio Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren zuzendariari.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, presidenteak hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Lan eskaintzan izena eman dutenen behin betiko zerrenda onartzea eta erabaki honen eranskin gisa atxikitzea.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesuko epaimahaikideen izendapena:

Lehendakaria: Joxean Amundarain Iturrioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Estrategia Zerbitzuko atalburua

Batzordekidea: Goiatz Oiartzabal Lakarra, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko zuzendaria

Batzordekidea: Gorka Julio Hurtado, Talaios koop. elkarteko aholkulari digitala

Idazkaria: Iker Necedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoko idazkaria

Hirugarrena.- Hautaketa-prozedurak hiru fase izango ditu:

1. fasea: azterketa teoriko-praktikoa (40 puntu)

Epaimahaiak lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten bi kasu teoriko-praktiko proposatuko ditu. Kasu bakoitza 20 punturen gainean puntuatuko da.

Erreferentzia gisa jarraian zerrendatzen den bibliografia lagungarri izan daiteke:

- [Gazteak euskararen eszenatokian. Erabileraren auzia.](#)
- [Sare sozialak eta gazteak: arriskua ala aukera?](#)
[Podcast honetan](#) Eneko Bidegain, egilea, entzun dezakezue.
- [Hizkuntzen heriotza digitala.](#)
- [Humanitate Digitalak.](#)



2. fasea: azterketa teoriko-praktikoaren defentsa eta elkarrizketa pertsonala (40 puntu)

Hautagaiek azterketa teoriko praktikoan idatzitakoa aurkeztu eta defendatu beharko dute epaimahaiaren aurrean. Epaimahaiak galdera gehigarriak egin ahal izango ditu.

Eduki akademikoaz gain, epaimahaiaren galderei erantzuteko gaitasuna eta malgutasuna baloratuko da eta, era berean, hizkuntza-kalitatea eta -trebetasuna baloratuko dira, bai eta gaien azalpena ere.

3. fasea: merezimenduen balorazioa (20 puntu)

Zuzenean Humanitate Digitala deritzon disziplinekin lotutako edozein gradu edo master: 5 puntu, 10 punturen mugarekin.

Esperientzia Humanitate Digitala deritzon disziplinekin zerikusia duen lanpostu batean, arlo pribatuan edo publikoan: 0,416 puntu hileko (lanaldi osoa); gehienez 10 puntu.

Laugarrena.- Hautagaiek ziurtatu beharko dituzte lan eskaintzan ezinbesteko baldintzen atalean jasotzen diren ikasketa eta hizkuntza eskakizunak, bai eta merezimenduen balorazioan kontuan hartuko diren ikasketa eta lan eskarmentua.

Epaimahaiak behar diren egiaztapenak egin ditzan, hautagaiek aipatutako titulazioen eta agirien kopia entregatu beharko dizkiote aipatu organoari azterketa teoriko-praktikoaren defentsa eta elkarrizketa pertsonalaren egunean bertan.

Bosgarrena.- Azterketa egunak eta lekua izangaiei jakinaraztea:

1. fasea: azterketa teoriko-praktikoa

Data: 2024ko azaroaren 29a

Ordua: 10:00 (iraupena 2 ordu)

Tokia: Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Patzuergoaren egoitza

2. fasea: azterketa teoriko-praktikoaren defentsa eta elkarrizketa pertsonala

Data: 2024ko abenduaren 3a

Ordua: Azterketa teoriko-praktikoaren egunean jakinaraziko zaio hautagai bakoitzari hitzordua

Tokia: Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Patzuergoaren egoitza

Hautagaiei azterketak hasi baino 10 minutu lehenago bertaratzeko eskatuko zaie, eta NAN aurkeztu beharko dute.

Seigarrena.- Erabaki hau Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren web orrian argitaratuko da eta, aldi berean, onartutako hautagai guztiei ere bide elektronikoaren bitartez jakinaraziko zaie.

Donostia, 2024ko azaroaren 22a



I. ERANSKINA

Hautagai onartuak

Ane Errazkin Aranburu

Ane Sagarzazu Zulaica

Igone Franco Garmendia

Itxaro González Guridi

Jon Martin Santana

Leire Lison Nicuesa

Maddi Goikoetxea Juanena